

Fazeria harremanak Zugarramurdi-Sara, 1829

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

Imanol Trebiño, *Administrazio zibileko testu historikoak*, HAEE-IVAP, 2001

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Fazeria harremanak Zugarramurdi-Sara, 1829

Lehen gutuna

A Alcate Jaunari
Saran
Zugarramundico Alcateac
Saraco Jaun Alcateari

Alcate Jauna, Errecibitudut Zure letra fecha Zazpian eta Errecibitua ylabete hunen hamarrear eta Errayten baytuzu bihartic aytzina ezdirela libro yzanen zure lurreco terminoetan (arrozoin) (...) facerien contra. Zure letraren arabera auntzec facerietan antolamenduen arabera Ezcur demboran Zor dute sei ardit buru bacoheco eta bertze gañeraco demboretan libro yguzquiz yguzqui. Gure Errico Alcate jaunac ezpaytaqui Escribitzen haren ordenaz erraten datzut. Causitzen dira Alcate Jaunarenac lau trisca ceynac Causitzen dira Zure ojan Zainac baytuac Eta othoyzten zaytut errendatzeaz gure herrico terminora halic lasterrena. Zure errico habitantequin eguizu justicia Zure autoritaten arebera eta gurea utzazu faceriec Erraten duen bezala eta Ulaco letrac ez dira ygortzen (biderenteequin) baynan bay (propioarequin). (Sustancias) Zure Cerbitzari

Juan Miguel Almandoz

Secto

Bigarren gutuana

A Alcate Jaunari
Saran
Zugarramurdi 13 de mayo de 18
Zugarramurdi Alcateac

Saraco Alcate jaunari: Errecibitudut Zu(re) letra eta Comprenitu Errayten duzun gucia. Beratarrequin eta Echaltarraquin devecatua baduzu ezduzu Baztandarrequin ez ere Zugarramurdiarrequin, iguzquiz yguzqui libro da larretan eta oyanetan eta oyanetan edoCeyn Azienda salbo Ezcur demboran. plazer duzunean Eracutsic(o) Zaytzu Combenion Copia duda horietaric atheratzeco.

Bertzealde errayten baytuzu heman zinueta aytzineco urtehean abisua Zure terminoetan Causitzen baziren auntzac bayt(u)ac yzanenzirela. hemen izantzen declaratua ordena hura mugan Causitzen ziren habitanteri zure letraren arrozoyona baynan etzinuen erraten letra

oray bezal(a) arrasta, Erratenzinuen gastuez gaynera(coy) eta bost sos multa leguearen arabera, nere baythan Causitzen da letra bera. Aparantziaz noiz nahi Erreberritzentuzu Combe- Combenioac eta legueac. Ezda soylqui auntzena, othe eta yratzen yncatzeco libertatearen, bertze horren bertze guerthatu yzanda Zure eta gure hartean.

Gueyago diozu bertze Cartan Eman zinuela ordena Zure Errico habitanteri, hamar egunen barnean seyñalaturic, hartezen moyena bere auntze encaminatzeco. Orobat behar cinuen pasatu abisua hunat, menturaz Causituco zuten Zure oyan Zainec hemengo auntzie Zure terminoetan. Etzayt yduritzen horren acholagabeac diren auntzen edo trisquen yabeac. leheneco cartan Erraten nuen bezala deseaten dugu lau trisquen turnatzea, hartuco moldea yduritzen Zaytzun arabera.

Zure Cerbitzari Jaun Alcatea

Jaun Miguel Almandoz

Secto